



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

2019/06/12

Bizkaiko Batzar Nagusietako Lehendakariak Gerediagako Batzarretzeko horma-irudiari egindako eraso gaitzetsi dau

Ana Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako Lehendakariak, Abadiñoko Gerediagako San Salbadorreko Batzarretzeko horma-irudi-kartelak jasan dauen eraso deitoratu eta gaitzetsi dau. Ezezagunek harrika apurtu dabe Batzarretxearen historiaren ganean berba egiten dauen horma-irudietako bat. Gerediagakoa Bizkaiko Foru Batzarren egoitza ofizialetako bat da, eta beste biak Gernikako eta Abellanedako Batzarretxeak dira. Urtero egiten dira bertan Batzarretako osoko saioak.

Erasoa jasan dauen barrutia jente guztiarentzako zabalik dago, herritarrek halan eskatuta. Abadiñoko udaltzainak jaubetu ziran erasoaz, asteleheneko azkenengo orduan barrutia ixtera joan ziranean.

Imanol Larrinaga artistak egindako kartelak Durangaldeko Merinaldeko udalerrri bakoitzeko ordezkariak erakusten ditu. Antxinako politikan funtsezkoa izan zan barrutiaren historia kontetan dauen horma-irudietako bat da. Otadui gure ondarearen parte dan barruti historikoaren aurreko errespetua eskatu dau, eta bere itxaropena erakutsi dau, holango erasorik barriro gertatu ez daiten.

Gerediagako San Salbador eta San Klementeren ermitea 2003. urtean eskuratu jaken Bizkaiko Batzar Nagusiei. Toki horretan Durangoko Merinaldeko Batzar Nagusiak egiten ziran antxina-antxinatik eta gaur egun Bizkaiko Batzar Nagusien Osoko Batzarrak egiteko erabilten da noizean behin.

Leku honen historiak Ertarora arte garoaz. Antxinean, Durangaldeak bizitza politiko autonomia izan eban, eta bertako arazoez erabagiteko burujabetasuna eukan. Izan be, Bizkaitik bereiztuta bizi izan zan garai baten, Nafarroako erreinuaren muga be izan zan-eta. Gerora, Gernikako Batzar Nagusietan parte hartzen ebanean, inoiz ez zan izaten eleizateen ordezkarien bitartez, Gerediagako Batzarraren ordezkarien bitartez baino: ordezkari bi bialtzen zituan 1628. urtetik aurrera, bost 1740. urtetik aurrera eta zortzi 1800. urtetik aurrera.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
12/06/2019

La Presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia condena el ataque al mural de la Casa de Juntas de Gerediaga

Ana Otadui, Presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, lamenta y condena el ataque contra un cartel mural de la Casa de Juntas de San Salvador de Gerediaga, en Abadiño. Desconocidos han destrozado a pedradas uno de los murales que hablan de la historia de esta Casa de Juntas, cuyos orígenes se remontan a la Edad Media. La de Gerediaga es una de las sedes oficiales de la Cámara Foral de Bizkaia, junto con las Casas de Juntas de Gernika y Abellaneda, y todos los años se celebran allí sesiones plenarias del Parlamento foral.

El recinto atacado está abierto al público por petición ciudadana y agentes de la Policía Municipal de Abadiño descubrieron el ataque cuando fueron a cerrar este espacio a última hora de la tarde del lunes.

Obra del artista Imanol Larrinaga, el cartel destrozado muestra a los representantes de cada municipio de la Merindad del Duranguesado. Es uno de los murales que cuenta la historia de este recinto clave de la política en la antigüedad. Otadui ha pedido respeto a este recinto histórico que forma parte de nuestro patrimonio y ha mostrado su confianza en que este tipo de ataques sin sentido no vuelvan a repetirse.

Las Juntas Generales de Bizkaia recuperaron en el año 2003 la Ermita de San Salvador y San Clemente de Gerediaga, lugar en el que antiguamente se reunían las Juntas de la Merindad de Durango. En la actualidad, esta sede es utilizada para celebrar alguno de los plenos que la institución foral convoca regularmente.

La historia de este lugar se remonta casi a la Edad Media. En el pasado, el Duranguesado tuvo una vida política autónoma, decidiendo acerca de sus propios asuntos. De hecho, durante algunas épocas históricas estuvo separado políticamente del resto de Bizkaia, siendo en algún tiempo frontera del reino de Navarra. Muestra también de esa personalidad es que la participación del Duranguesado en las Juntas de Gernika nunca fue individual por cada anteiglesia sino que la Junta de Gerediaga enviaba representantes comunes, primero dos desde 1628, aumentándose posteriormente en 1740 a 5, hasta un máximo de 8 en 1800.